

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekainaren 7an egindako bilkuran

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 70. artikulua xedatzen duenez, aurrekontu-izendapena duten giza baliabideen beharrianak enplegu publikoaren eskaintza bidez beteko dira. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua ere gauza xedatzen du.

Antolakuntza Zerbitzuak 82 lanposturen eskaintzari buruzko buruzko txostena egin du. Horietatik 51 txanda irekikoak izango dira, 26 barne-sustapenekoak eta 5 desgaituen txandakoak. Desgaitasuna dutenentzako plazak ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak betetzeko gordeko dira. Zerbitzu-laguntzaile lanposturako bi dotaziok osatuko dute eskaintza. Desgaitasun intelektuala duten pertsonak betetzeko diseinatuta egongo dira, eta aparteko deialdi bat izango dute.

Birjarpen-tasari dagokionez, Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluan jasotako agindua bete egiten dela adierazi du Antolakuntza Zerbitzuak txostenean.

Udalaren kontu-hartzailetzaren txostena, aurrekontu-kredituari buruzko txosten ekonomikoa eta txosten juridikoa ere egin dira.

Era berean, langileen batzordearekin negoziatu da eskaintza, maiatzaren 15eko eta 22ko bilkeretan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 37.1.l artikuluekin bat etorritik.

Horrenbestez, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua — abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua — aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez Funtzio Publikoaren Saileko zinegotziaren esku utzitako aginpidea betez, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Onestea Vitoria-Gasteizko Udalaren 2024ko enplegu publikoaren eskaintza (82 lanpostu). 51 plaza txanda irekikoak izango dira, 26 barne-sustapenekoak eta 5 desgaituen txandakoak, akordio-proposamenari erantsitako eranskinaren arabera.

Bigarrena. Oposizio-lehiaketa sistema orokorra baliatuko da.

Hirugarrena. Hiru urteko epean amaitu beharko da eskaintza, deialdia onartzen den egunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa hilabeteko

epean, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 30ean

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

Enplegu publikoaren eskaintza. Eranskina

2024. urtea

%	Dedikazioaren %
DD	Derrigortasun-data igarota
Kodea	Lanpostuaren kodea
PI	Barne Sustapena
IREKIA	Irekia
DESG	Desgaitasuna

MATRIKULA KONTUA				TXANDAK				
TITULAZIO-TALDEAK	IZEN LABURRA (EUSKARAZ)	DEDIK. %	DD	PI	IREKIA	DESG.	GUZTIRA	
A1	ADMIN. OROK. G. T.	100	EZ		1		1	
	ARKITEKTOA	100	EZ	1			1	
	EKONOMILARIA	100	EZ	1			1	
	INFORMATIKA APLIKAZIOET. G. T.	100	EZ	1	2		3	
				BAI		1		1
	KAZETARIA, G.T.	100	BAI		1		1	
A1 (Guztira)				3	5		8	
A2	JARD. SOZIO-KULTURAL.E.T.	100	BAI	2	4	1	7	
	KUDEAKETAKO TEK.	100	BAI		1		1	
	HEZKUNTZAKO E. T.	100	BAI		1		1	
	ITZULTZAILEA, E.T.	100	EZ		1		1	
	GIZARTE-LANGILEA, E.T.	100	EZ		1		1	
	LANEKO OSASUNEKO ERIZAINA	100	EZ		1		1	
				EZ	2	1		3
		GERIATRIAKO ERIZAINA	100	BAI		1		1
		TERAPEUTA OKUPAZIONALA, E.T.	100	BAI		2		2
	KIROL KOORD. , E.T.	100	BAI	1	1		2	
	LAN HARREMANETAKO E.T.	100	BAI		1		1	
A2 guztira				5	15	1	21	
A2,C1	HEZITZAILEA	100	BAI	2	2	1	5	
Guztira, A2,C1				2	2	1	5	
C1	PERKUSIO-JOTZAILEA	100	EZ		1		1	
	TRONPETA-JOTZAILEA	100	EZ		1		1	
	KAPATAZA	100	EZ	1			1	
	MANTENTZE T. E.	100	EZ	1			1	
				EZ	1	1	1	3
		ADMINISTRARIA	100	BAI	1	3		4
		DELINEATZAILE PROIEKTUGILEA	100	EZ		1		1
	LABORATEGIKO T. E.	100	EZ		1		1	
C1 guztira				4	8	1	13	
C2	ARGIBIDE ETA KONTROL AGENTEA	100	BAI		1		1	
	MANTENTZE OFIZ. ESPEZIALISTA	100	EZ	6	6	1	13	
	APARKALEKU JAGOLEA	100	EZ		1		1	
	GARBIKETA 1	100	BAI	1			1	
				EZ	4	6	1	11
	ERIZAINZAKO ZAINKETA LAG. TEK.	100	BAI	1	1		2	
C2 guztira				12	15	2	29	
E	IKUZ., JOS., LISA.LAGUNTZ.	100	EZ		1		1	
	LANBIDEETAKO LAGUNTZAILEA	100	EZ		3		3	
	GARBIKETA 2	100	EZ		1		1	
	GARBITZAILE-ZERBITZARIA	100	EZ		1		1	
E guztira					6		6	
Guztira				26	51	5	82	